

danbolic

2026 urtebaita

284^{ak}



Lutxi
Segurola Gerriko:
beti bixi



675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, beheka - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Portale Kalea 7,
20740 Zestoa
tel. 943 147 088



Ordutegia
Aste barruan 06:30/13:30
16:30/20:30
Asteburutan 06:30/14:30
Arratsaldean itxita
By NADIA
Tlf: 943 536 314
ZESTOA



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK

telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAK
Gesalaga kalea, 22 beheka 20740 ZESTOA
Tel./Fax: 943 897 099 asesoriaarin@asesoriaarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067



Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740

mizuclicinicaldentat@gmail.com
ZURINE ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDIOIA ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Telf.: 943 14 78 28



Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa



Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com



kutxi eta pentsuak
www.laiakdenda.com
tfnua: 943148134
laiak
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean



Tlf 943 323 894
Gurutzeaga kalea 11-13



Tel: 943 090341



Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269



Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l
Itzulpenak baino askoz gehiago!

Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



665 49 07 73



foru plaza. 4
tel. 943 147 095



Landetxea eta jatetxea
943 148 005

KIROL BAZKUNA EHUNTZEN

Hil honetako erreportajeak Zestoako Kirol Bazkunaren sorrera garaira garamatza. Mende erdia egin behar da atzera. Ez zen kirol askorik egingo garai hartan, ez behintzat oso egituratuta eta antolatuta. Txirrindulariak, mendizaleak, herri kiroletako apustulariak... irudikatzen ditut, ia-ia denak gizonak. Zestoako Kirol Bazkunak herrian kirola egitea bultzatu nahi zuen, eta antolatu. Gutxiago edo gehiago errotu ziren taldeak kirol hauetakoak izan ziren: futbola, atletismoa, mendizaletasuna, eskubaloia, pilota eta txirrindularitza. Kirol horiek egiteko orain dauden manerekin ez alderatu; artikuluan irakurriko duzue ez zegoela eskubaloia jokatzeko aretorik, ez futbol zelairik, eta amestu ere ez atletismo pistarik. Hala ere, herri guztietan bezala, Zestoan ere, kirolak sustatzeko gogo galanta zuten herritarrak zeuden, eta handik eta hemendik jokatzeko tokiak eta baliabide ekonomikoak bilatzen lana egin zuten. Herritarrak kirolerako animatzen eta biltzen ere lan ederra izango zuten. Urteen poderioz, ohitura bitxi samarra zen hura, alegia, kirola egitea, asko orokortu da. Dena den, ezin da ahaztu apenas zegoela emakumerik artikuluan deskribatzen den koadro horretan. Artikuluan agertzen den datu bat da hau: Leire Lopetegi eta Maialen Etxeberria izan ziren Zestoako Pilota Elkartean federatutako lehen bi emakumeak, 2016an. Bai, 2016an. Pilota aipatu dugu, baina ez dadila gaizki-ulerturik egon, gizarte honi, orokorrean, asko kosta zaio emakumeak ere kirolari izan daitezkeela barneratzea.

Lutxi Segurola beste koadro bateko pertsonaia da. 'Jardunian' atalean aurkituko duzue. 1936an, Azpeitiko Landeta auzoan jaio zen eta Lasako Elarritza baserrira ezkondu zen. Elkarriketan ez du kontatzen, baina ez dut uste eskubaloian edo futbolekin arituko zenik gazte garaian. Bestelako lanak egokitu zitzaizkion generoaren arabera egitekoak hain zehaztuta zeuden garaian (orain ere bai). Badaki zer den zaintzea. Urte luzez gaixo egon zen amari kontu egin zion, hiru seme-alaba hazi ditu eta zortzi bilobak ere inguruan izan ditu. Urte batzuetan pertsona edadetuak zaindu zituen Foru Aldundiaren proiektu bat tarteko, eta hainbat udatan euskara ikasleak ere izan zituen baserrian. Lutxi harro dago egindakoaz, zaintzari balio handia ematen diolako, gizarte honek ematen diona baino askoz gehiago, eta pozik dago bere ondorengoei erakutsi dielako ze garrantzi duen zaintzak.

Pertsonen gain, baratzea ere zaindu du eta zaintzen du Lutxi. Beharbada kirolak ez zuen egingo, baina kalekume batek zer esan behar ote dio baserritar bati ariketa fisikoz...

onintza irureta azkune



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRICIZIEN ERANTZUKIZUNA

Argibarrabazaila: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIRA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MATSUCANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ICSASO WALIÑO, OHIANA CALPARSORO ETA OIHANE GOIKOECHEA
Kolaborabazaila/ezarbazaila taldea: NAGORE TELLERIA, JON ARTANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ICSASO ZUBIRIA ETA MIKEL LIZARRALDE
Disainua eta markezak:

ENEKO ARISTI

Inprimabegia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISBN: 1576-9429



Running Garaiak

Epa, Asier. Ba gu ere oso gaztetxotan hasi gintuan korrika (garai hartan, "saltaka"). Ez dakit zenbat urterekin, sanjosetako kroseko astean lagun artean entrenatzen ari ginela gizon bat etorri zen guregana. Iñaki Irureta



Triku zen, eta nahi bagenuen aurrerantzean korrikan nolabaiteko era antolatu batean entrenatzen hastea proposatu zigun.

Hasiera batean lagun hankamehe bakar batzuk hasi ginen, baina, oso denbora gutxian, Zestoako Atletismo Taldea sortuz gaztetxo mordo bat bildu ginen, neska eta mutil, guraso eta gazte batzuk elkar hartu eta zereginak antolatuta. Esango nuke herriko atletismoko urrezko garaia bizi izan genuela adin desberdinetako "zahar eta gazte" talde haundi bat osatuz, kontuan hartuta ordurako futbolak indar haundia zuela eta korrika ibiltzea nolabait haize kontra ibiltzea zela.

Entrenatzaile eta guraso-laguntzaileak ere beren gogoz etortzen zirenez, bakoitza bere izaerarekin, ez zen aspertzeko modurik izaten. Ez noa izenak aipatzen hastera, asko zirenez norbait ahaztuko zait eta. Oso garai atseginak bezala gogoratzen ditut urte haiek, gehienetan txantxa eta jolasean. Kirol bakartia dirudien arren, entrenamenduak eta krosetarako joan-etorriak taldean eginez oso desberdin ikusten da. Ni oso umetatik beti korrika ibiltzen nintzenez, beti horrela izango zela irudikatzen nuen, baina, bizitzan beste gauza asko bezala, hori ere aldatu zen.

Eta gaia aldatuz, zuretzat ere aldatu al da xomorro eta piztiekin zenuen erakarpen-miresmen hura, Shannon?

jose mari ugkudun

pintada.

sahararrek ere OPORRAK BAKEAN PASA DITZATEN. Oporrak Bakean programari esker, urtero bezala, Saharako haur errefuxiatuek uda Euskal Herrian igaroko dute. Helburua da udan han izan ohi dituzten baldintza gogorretatik aldentu eta, bi hilabetez bada ere, beharrezko osasun azterketak egingo dituztela eta ondo elikatuko direla ziurtatzea. Aurten, bost haur ari dira eskualdeko harrera familiekin uda pasatzen; horien artean ez dago Zestoako familiarik. Beste hamahiruk Azpeitiko Ikasberri Ikastolako Bakeleku udalekuan pasatuko dute uda.

Programa Zumaiaiko Darahli elkarteak koordinatzen duen arren, gure elkartetik ere ahal den heinean laguntzen diegu uda osoan, bai elkarteari bai haurrei. Aurten, haur baten bidaia ordaindu dugu, eta udan urez betetako deposituak prestatzen ari gara, abenduan Saharara eramateko.

Elkartasun hau guztion artean eraikitzen da. Datorren urtean ere zabalik izango dituzte ateak saharar haur baten harrera familia izan nahi dutenek, Bakelekuan boluntario gisa aritu nahi dutenek edo beste edozein modutan lagundu nahi dutenek.

Zestoako Wadna elkarteak

Ama

Bizitzeak heriotza zor... hala entzun izan dut nik. Egia da heriotzatik inor ez garela salbu izango; horrek berdintzen gaitu denok. Batzuetan ustekabeen iristen da, beste batzuetan inguruan bueltaka

darabilgu, baina modu batera edo bestera heltzean, mina ematen du. Guri egokitu zai-gu orain dela gutxi: amaren heriotza iritsi zen hilaren hasieran. Heriotzari iheska ibili zen gure ama, iskin egiten zion eta amak esaten zuen “enitxion makala e!”. Beti ezin iskin egin, ordea, eta iritsi zitzaion azken hatsa emateko unea. Ez zen une xamurra izan, nahiz eta amak berak eskatu sedatzea; ez da erraza erabakia onartzea, ikustea badoala eta era berean sufritzen ikusi nahi ez izatea. Sentimendu kontrajarriak inondik ere. Hiltzen ere lagundu daiteke, eta horrela egin genuen, azken uneraino bere ondoan izateko aukera izan genuen eta. Bestalde, pentsatzen dut oso erabaki ausarta dela norbere heriotzaren gainean hartutakoa, ikustea ez daukala itzulbiderik eta bizitzaren amaiera iritsi dela: duintasunez hiltzea gauza handia da. Denoi iritsiko zaigu, eta geratzen direnei gauzak errazteko bidea da aurretiazko borondateak idatzita uztea ere. Galbahea poesia liburuan azaltzen den bezala “gure ama, bere amaren antzera, beste emakume eta ama askoren antzera, sufrimenduaren harri-jasotzailea izan zen”. Baserrian jaioa, bost seme-alaben ama; anaia, osaba, ama, izeba, gure aita, bilobak... denak zaindu zituena/gintuena; San Juan egoitzako langile izan zena eta ondoren egoiliarra. Guraso elkartean ibilia, Lourdesera bidaiak ere egin izan zituen gaixoekin... Zaintzari buruz zer bait baino gehiago erakutsi zigun, bai!

Orain atseden hartzea dagokio, eta guri bera gabe bizitzen ikastea, bizilegea omen. Ez da erraza hitzetan adieraztea sentitzen den guztia, mina ez da nirea bakarrik, gurea da. Lagun batek bidali zidan mezuan, haren bikotekideak amaren eskalan idatzitakoak, laburbiltzen du orain sentitzen duguna: “Ama, zure barruan egon ginen, orain gure barruan zaude”. Olazabalgo lurak goxo har zaitzala.



Bainuetxearekin, zer?

Beti eragin dit zirrara Zestoako bainuetxeak, haren handitasunak, haren arkitekturak, ezin uka behiala izandako dotorezia apur bat hondatuak sentiarazten duen malenkonía izpiak baduela berekin gozotasuna eta lilura. Han dago, denbora gainditu duen erraldoi baten gisa.

Tarteka kafetegira joatea gustatzen zait. Duen sabaiaren altuera, dekorazioa, ibaiaren murmurioak laztantzen duen terrazaleku aparta da irakurtzen egoteko, albotan jubilatutako asperturen bat bilobaren bideo zaratsuak ikusten hasten ez bazaizu, bederen. Baina beti harritu izan nau zein zestoar gutxi ikusten dudan bertan; inor ez, gehienetan. 1893an ateak ireki zituen Gran Hotel Balneario de Cestona zestoarrentzat ez balitz bezala.

Neure kabutan pentsatzen nuen, agian, zestoarrek ez ote duten ikusten bainuetxea elite baten egonleku gisa, handi-mandien oportoki, nahiz eta gaur Imerso den bezero nagusia. Baina historiak hor dirau, eta askotan oroimenak gehiago agintzen du guregan, errealitateak baino.

Gero jakin nuen, nire harridurarako, XX. mendearen erdia ongixto igaro arte zestoarrei ez zitzaiela bainuetxean sartzen uzten, lan egiteko ez bazen, eta hor kausitu nuen oroimenaren beste arrazoi bat hara ez hurbiltzeko.

Ezin dugu ahaztu bertako langileek urteetan egin duten borroka lan baldintza duinen alde, bainuetxea esplotazio-gune ere bazela oroitarazi ziguna. Eta egia da euskal kulturarekin ere ez duela inoiz lotura handirik eduki, aspaldi ETBrako grabatu ziren gala batzuk kenduta. Egunkariak egoten ziren garaian honakoak ziren: El Diario Vasco, El Correo, El País, El Mundo eta ABC.

Urtez urte hondatzen eta hondoratzen doan altxor bat da, eta pribatua den arren emozionalki Zestoarena dela sentitzen dut. Ba ote dago modurik herriaren eta ondare horren artean harremanak estutzeko, bainuetxea zestoarren dinamikan nolabait integratzeko? Jende asko igarotzen da handik; jasotzen al dute Zestoaren nortasun kulturaletik ezer, ala postal batean ageri den herririkka gara haientzat? Ez dakit; zutabe honek ez dauka tesirik amaieran, kezka bat soilik, leku kuttun eta berezi baten galera erabatekoa izan ez dadin.



Lutxi Segurola Gerriko

1936

1936AN JAIO ZEN LUTXI SEGUROLA GERRIKO (AZPEITIA, 1936) ETA ELARRITZARA EZKONDU ZEN GERO. TXIKITATIK NESKA BIHURRIA ETA BIXIA IZAN DELA ESAN DIGU, ETA DATOZEN LERROETAN IRAKURRI AHAL IZANGO DUZUEN BEZALA, BESTEEI LAGUNTZEN EMAN DU BIZITZA, GOGOR LAN EGIN ETA FAMILIA ZORAGARRI BAT OSATZEAZ GAINERA.

Jaiotetxea eta familia.

Azpeitian jaio nintzen, Larrain base-
rrian, Landeta inguruan. 1936koa
naiz, gerra orduantxe egongo zen,
baina nik gerrarik ez dut ezagutu.
Nire ama, Isabel Gerriko; beti gaixo-
rik. Baserrikoa bertakoa zen eta, hi-
ru ahizpetan zaharrena zenez, bera
geratu zen baserrian, *maiorazka*. Ai-
ta Santiago Segurola, Atzerrekako
Arlizeta baserrikoa; gizon langilea
zen, ez dago esaterik. Ama, esanda
bezala, beti *delikada*; gure amamak
zenbat sufritu zuen beti bere alaba
hori zaintzen! Hezurretako gaixota-
sunen bat zeukan (garai hartan ez
zeukan izenik, baina Marijok argitu
digu esklerosia izango zela). Ama
gaixorik ezagutu genuen guk, ama-
ma, berriz, zen amama, ama eta de-
nak. Bi ahizpa eta anaia bat ginen,
neu gazteena.

Baserritik bizi ginen. Animaliak ge-
nituen, ogia egiteko labea ere bage-
nuen. Guk ez genuen ogi faltarik iza-
ten. Dena etxerako izaten zen, baina
esnea kanpora ere saltzen genuen.

Zer egiten zenuten txikitan?

Esango banitu... nire txikitako base-
rri hura... Ez zegoen fabrikarik eta
ez zegoen ezer Landetan, baserri ba-
tzuk. Larrain baserri hori kaminoa-
ren ondoan zegoen, ibai handi bat
ere bazen, eta presa handi bat. Joa-
ten ziren etxeko aita eta aitita sies-
tara, eta gu ibaira joaten ginen igeri
egitera, han ikasi genuen. Sakona,
ederra eta garbia zen ibaia. Presan,
berriz, han jartzen ginen tente eta
salto egiten genuen goitik behera.
Akordatuta ere... zer ibiltzen ginen!
Auzoko ume guztiok han elkartzen
ginen, eta etxekoak siestatik esna-
tzen zirenean laguntzera bueltatzen
ginen, sorora edo, itula edo...
Ijitoak ere etortzen ziren ibai harta-
ra eta hura izaten zen gure festa...
haiei begira! Karroan etortzen ziren,
zaldiak tiratuta. Haiei begira denbo-
ra pasatzen genuen; dantza egiten
zuten, umeak hanka hutsik, soineko
luze batzuk soinean eta kitto! Ilun-
tzean gure etxera etortzen ziren es-
ne bila.

Eta eskola?

Landetatik Azpeitiko *Mixeikordia* joan ginen eskolara. Lehenengo amamarekin edo tiarekin joaten ginen, erakutsi ziguten bazter-bazterretik nola joan, eta pixkanaka-pixkanaka bakarrik. Kilometroa inguru egongo zen. Eguraldi ona bazen horrelaxe, eta eguraldi txarra bazen poza hartzen genuen, Azpeitiko izebarenean geratzen ginen eta bazkaltzen.

Gaztelerarekin ondo?

Eskolako oroitzapen onak ditut. Dena erdaraz, eh! Etxean Lutxi nintzen, lagunartean ere bai... Mojek Lutxi entzuten bazuten zuzendu egiten zuten, Lucía esan behar zela. Erdaraz jakin gabe hasi nintzen eskolan... pixkanaka-pixkanaka. Eskerrak horri, gaur erdaraz badakit nik! Ez daukat edozein tokitan edozeinekin erdaraz hitz egiteko ezinik, eta zeri eskerrak? Haien gogortasunari eskerrak. Eskola erakusten zorrotzak ziren, baina onak!

Orain, kastiguak... "problemak" jartzen zizkiguten eta guk egin egin behar. Esprikatzen zizkiguten ondo, pazientziarekin... ez baldin bazenuen asmatzen... eguerdian laga egin behar da, bazkaldu gabe, "hasta que hagas". Ni behin geratu nintzen... Oso bihurria, jolas-tia... nahiago nuen itulan aritu ikasten baino... eta ahizpa, berriz, oso saiatua zen. Gogoratzen naiz zigortuta geratu nintzen egunean negarrez joan zela etxera hura.

Oso diferentea bilatzen dut oraingo eskola eta garai hartakoa. Bai nire seme-alaben garaiakoa, bai bilobena. Orain, ikasi bai eh! Erakutsi egiten ziguten.

Eta eskola bukatutakoan?

Hantxe, baserrian lagundu eta bata eta beste... gero, tia Luxiarengana joan nintzen, Azpeitiko harategira. Baina tarte horretan ama gaixorik; amama hura zaintzen, aita hura zaintzen; baserriko lanak ere bai. Harategian lana egin eta Elenatxo, lehengusua, zaintzen nuen. Eta gero, gauetan amarengana. Gaue-tan Larrainen eta egunez Azpeitian.

Erromeria-zalea al zinen?

Ahal genuen tokira joaten ginen. Azpeitiko festak, Azkoitiko festak, Zestoako festak, Urrestillakoak, Matxinbentakoak, Beizama-koak. 18 urtetik aurrera edo.

Helduta ere egiten al zenuten dantza?

... San Agustinen, hilean behin gazteen elizkizuna izaten genuen igandean. Han medaila bat jartzen ziguten, zinta urdinarekin. Baina, ni ere deskuidatuko nintzen ba, eta behin, Landetako festetan edo Azpeitian, baten ba-

tek salatu edo, gustuko mutilen batekin *agarrauan* egin nuela. Zinta hori kendu zidaten. Hori ere pasatuta nago. Hura kendu zidaten eta kitto. 18 urte bueltan izango nituen. *Zeladorak* ibiltzen ziren, behatzen. Baina ez nintzen gaizki sentitu. Kontua izaten zen etxeak jaitzen bazuten edo...

Igandetan izaten zenuten libre, orduan?

Bai. Pelikula baldin bazen, pelikula ikusi. Bestela gora eta behera Erdikalean. Baina garaiz etxera.



Ezkontza eguna arantzazun, 1970ra ikastera etorritako bat, etxe atarian

Eta gizona hor nonbait ezagutuko zenuen.

Bai, Joxe Mari Azkue, Elarritzako semea. Nik 33 urte nituela ezkondu ginen eta Elarritzara etorri. Arantzazun ezkondu ginen. Manuel Azkue jesuitak, nire senarraren lehengusuak, ezkondu gintuen; aita zuen Elarritzakoa hark.

Eta egin al zenuten bidaiarik?

Joxe Mariren kotxean egin genuen ezkonbidaia, Valentziara joateko ilusioa! Bere kotxearekin Valentziara joan egin behar da! Hemengo semea, nora irtengo zuen ba! Baina azkarra zen. Hura zen futbolzalea, realzalea, eta ni itsaso-zalea, plaiatzalea... eta joaten ginen plaiara, baina arratsalde batean Realak jokatzen zuela Valentzian; hark irakurri edo bilatu edo... eta ni nire artean "nahiago nuke futbol-zelai hori bilatuko ez balu". Bai bilatu ere! Ni hondartzatik atera nahi ezik eta zer da eta arratsalde oso bat *kanpofutbolera!*

**"BEHARRA
DAUKANAK ATEA JO
DUENEAN LAGUNDU
EGIN DIOT.
ETA HORI
TRANSMITTZEN
SAIATU NAIZ"**



Eta bueltan Elarritzara.

Elarritzan garai hartan maiorazkoa zen Joxe Mari eta gure ezkontza poz handia izan zen, baita ondoren eraiki genuen familia ere. Joxe Mariaren gurasoak bizi ziren bertan eta garai hartan baserrian biltzen ziren bere beste senideak ere.

Bi alaba, Nerea eta Mari jaio ziren lehenengo eta denak mutilaren zain...maiorazkoaren zain. Azkue abizenak jarraitzea garrantzitsua zen...eta azkenean iritsi zen Jon semea. Hura poza!

Nolakoa zen bizimodua hemen?

Baserritik bizi ginen. Baratza handia genuen eta uda etortzeko pozak; baratzak ematen zuen baina, patata, baba... Hori guztia bainuetxera saltzen genuen udan. Bainuetxea beteta egoten zen eh! Sagarra bazen, zegoena erosi egiten zuten. Gero, esnearekin salbatu ginen, *Gurelesa* edo hemen jasotzen hasi zenean. Hori ere aldea zen. Basoa atera, basoa garbitu... Hemen pinudi handiak ziren, eta basoko egurrak estimazio handia zeukan, gaur ez daukana. Moztu, eta kamioikadak eramaten zituzten.

Ama, beti presente.

Ama jaiotetxean zegoen, baina ni ezkondu nintzeneko ohean. Garai haietan, hark pasatzen zituen depresioak, minak... bi lagun behar ziren hura zaintzeko. Burua bakarrik mugitzen zuen, baina memoria ona, oso. Buelbaka jarraitzen nuen nik, Elarritzatik Larrainera. Baina momentu bat iritsi zen hona ekartzea erabaki genuena, nire seme-alabak txikiak zirela. Hortxe behean egoten zen. Guztiz elbarritu zenean, min guztiak joan zitzaizkion; ezin zen mugitu, baina minik gabe egonkortu zen, etxeko guztiok ibiltzen ginen haren bueltan, hogeita lau orduz. Elarritzan hil zen, goxo-goxo, edade handiarekin. Gainera, amaren azken urte hartan nire ahizpa moja ere hil zitzaidan. Seguran urte askoan egon zen babestu beharreko haurrak zaintzen, eta ondoren adinekoak zaintzen. Gero Beasainen adineko egoitza batean aritu zen. Miserikordiako moja zen, "hija de la caridad", eta baimena zuen astean behin, astelehenean, ama bisitatzerako etortzeko. Kotxean etortzen zen astelehenero eta asteartean itzultzen zen. Bidaia horietako batean, asteartean bueltan zihoala, istripuz hil zen Danonan. Kolpe handia izan zen. Beste urtebete edo iraun zuen amak.

Zaharrak etxean hartzen hasi zinen gero.

Ama hil zenean, bere gela izan zeneko atea ezin ireki nik, ez dakit zer gertatzen zitzaidan. Azpeitiko gizarte zerbitzuetatik proposatu zidaten adinekoak etxean hartu eta zaintzea. Foru Aldundiak adinekoen harrera programa bat zeukan eta familia hartzaileak gizarte zerbitzuek koordinatzen zituzten. Azpeitiko, Zestoako eta inguruko Gizarte Zerbitzuekin harreman handia izan nuen urte haietan, haiek koordinatzen baitzuten programa. Horrela hasi nintzen eta



Bilobekin



Lasaoko elkartean, 2016an



Baserrian senarra Joxemariarekin, iloba Agustinekin eta Nerea eta Marijo alabekin. Lutxi haurdun, semearen esperoan



Alaba Marijo, adineko bat eta euskara ikastera etorritako bat, etxeko atarian

Faustina izan zen gure etxean artatu nuen lehen adinekoa.

8-10 urtez aritu nintzen. Hiru edadetu ere egon ziren batera. Guztira 7 adineko artatu nituen. Arrasateko amona lehenengoa, ondoren Arrasateko gizonezkoa. Azpeitia eta Beizamako bi emakumezko eta gizonezko bat izan nituen gero, eta amaitzeko Asteasuko amona bat eta baita hainbat urtez morroi gure etxean egon zen gizonezkoa ere.

Nire senarra gaixotu zen eta urtebetean hil zen. Horregatik, alde batetik, eta ni ere adinean aurrera nindoalako, bestetik, zaintzak eskatzen dituen gorabehera aurre egitea niretzat gehiegi zela ikusi nuen (medikuak, ospitaleko kontuak, gestio kontuak...) eta horrela utzi nuen. Gogo handiz aritu nintzen, oso gustura.

Euskara ikasten ari zen jendea ere hartzen omen zenuten.

Eusko Jaurilaritzak bidaltzen zituen hona. Ze oroitzapen dauzkat! Gazteak, jatorrak... Bilbokoak, Donostiakoak... euskaraz tutik ez eta sartu baserri-zulo honetan, *desierto* honetan! *Aitu*, negarrez joaten ziren eh! Haien pena! Hilabeterako etortzen ziren, banaka, udaren arabera bi edo hiru. 5-6 urtean aritu ginen horretan.

Hemen edadetuak zeudenean etortzen ziren. Etxea bete-bete. Ederki ikasi zuten euskaraz, parrandarik ere egin zuten gure seme-alabekin, baina baserriko bizimoduaz eta adinekoekin elkarbizitzaren eta beharra zuena estimatzen ere ikasi zuten...Seme-alabek bezala!

Zortzi bilobek ere ederki ikasi dute, poz hori daukat!

Gogoan dut Edurne. Albaitari izan nahi zuen eta hemen animaliak zeuden. Txahal bat gaixotu egin zen eta albaitaria etorri zen kura egitera. Edurne hark laguntza eskaini zion eta Juan Leturia albaitariak linternari eusten jarri zuen. Kura egiten ari zela hasi zen linternaren argi hura mugitzen eta hantxe erori zen "plast!", mareatuta!

Beste anekdota bat ere izan zuen Edurne hark ahuntz batekin. Ahuntza lotuta egoten zen eta ekartzeko esan nion. Ahuntz hori ohituta zegoen artoa eman eta atzetik etortzen. Joan da artorik gabe, baina ahuntz horrek atzetik segitu. Ikusi bazenu haren ikarra hura, ahuntza atzetik zuela! Bera zenbat eta azkarrago, ahuntza ere orduan eta azkarrago. Atea itxi zion, nola edo hala.

**"BASERRIGIK BIZI
GINEN. BARATZAK
EMATEN ZUEN
BAINA, PATATA,
BABA... HORI
GUZTIA
BAINUETXERA
SALTZEN GENUEN
UDAN"**

80-90 hamarkada jendetsua eta mugitua izan zen zuen etxean, baina 2000. urtean, gizona hil ezkeror, zaharrak eta euskara ikasleak hartzeari utzi zenioten. Orduetik hona, zer?

"Ezer ere ez" atera zaio azkar, baina berehala kontraesan du Nerea alabak: lan asko egiten du. Oilategia bere kontu dago, arrautzak jaso, jana eta ura jarri, garbitu... krocketak, bizkotxoak eta edozein momentutan bazkaria egiteko prest, baratzean aitzurrean; belarrak kendu, baba ondo zaindu, ondo bildu, ondo lehortu... Horiek dira bere espezialitatea.

Sekula ez dut gerriko minik izan. Sagar biltzen ere aritzen naiz, dagoenean. Eta *menbrilloak*. Etxeko sagarra, errege sagarra. Bi urtetik behin izaten da hemen. Orduan egiten dut *menbrillo* asko-asko, izozkailuan sartu eta hor ondo egoten da (bi eman dizkit, bat niretzat eta bestea gure amarentzat).

Bilobak etorri ziren gero. Txikiak zirela hementxe denak bueltak...eta orain gazteak dira eta bakoitza bere ikasketak, lagunak, festak...baina baserria eta amama ez dituzte saltzeko eh...Hortxe dituzu denak (tximinia seinatu du, guztien argazkiekin). Umezain ere ibili naiz.

Joaten al zara Lasaora?

Asteazkena etortzen da eta, eguraldi txarra baldin bada, kotxea hartu eta Lasaoko elkartera joaten naiz, eguraldi onarekin, oinez. Hor juntatzen gara nire edade moduko bost edo sei emakume eta ez dakizu zein ondo pasatzen dugun. Eta esaten dugu: eskerrak Lasaoko elkarte hau gazteak borroka egin zutelako dagoela! Kafesnea, norbaiten urtebetetzea denean bizkotxo ere bai, eta hizketan pasatzen dugu denbora.

Zapatutan elizkizuna egoten da. Apaiza, Yon, hilean behin etortzen zaigu. Gainontzekotan elizkizuna, liturgia, Otolako Rexuk egiten du. *Tapizeiko* Jexux Marik organoa. Kantuak... ezta Erromako katedralean ere horrelako kanturik, bozgorailuekin! Orain hasi da Mizpiretako Iñaki etortzen. Ez dakizu ze ahots eta ze kantu kantatzen dizkigun! Ezagun du ahotsa nola *domatzen* duen. Orain huraxe etortzen zaigu eta gu, lau edadetuok, hantxe.

90 urterekin bixi-bixi jarraitzen du Lutxik. Harro dago bere familiaz eta transmititu dienaz. Izan ere, behar duenari laguntze hori jaso dute bere seme-alabek zein bilobek. Bizitza luze bezain oparoaren errepasoa egiteko balio izan dio ia hiru ordura iritsi den elkarriketa honek eta eskerrak eman dizkit bai niri bai Danbolini, hori egiteko tartea emateagatik. Bi *menbrillo* zorro batean hartuta agurtu dut familia.



SAN LORENTE ERMITAKO KANPAIA LAPURTU DUTE

Zestoako San Lorente ermitako kanpaia lapurtu dute. Zestoako Udalak uztailaren 3an izan zuen gertakariaren berri. Kanpaia lapurtu ez ezik, hura eramateko lanetan ari zirela, ermitaren dorrea kaltetu zuten. Baita goitik eroritako harriek ermitaren ondoko zimitorioko teilatua hondatu ere.

San Lorente ermita jabetza pribatukoa bada ere, Zestoako ondare historiko garrantzitsuenetako bat da. Lapurretak, beraz, kalte materialez gain, ondarearen aurkako eraso ere eragin du.



ZESTOA FUTBOL TALDEA FINALERDIETARA IRITSI ZEN DONOSTI CUP TXAPELKETAN

Hilaren hasieran jokatu zen Donosti Cup futbol txapelketa, eta bertan parte hartu zuten Zestoa Futbol Taldeko bi taldek: bata, B14 kategorian, eta bestea, B18 kategorian.

B18 kategoriako taldeak txapelketa bikaina burutu zuen, izan ere, Champions League-eko finalerdietara iritsi ziren. Bertan amaitu zen, ordea, euren ibilbidea, IP Dream Fusion talde madrildarraren aurka 1-3 galdu ostean. Guztira, bost egunetan zazpi partida jokatu zituzten, eta txapelketako azken bi egunetan bina neurketa jokatu zituzten. Ligaxkako sailkapena lehen postuan amaitu zuten, hamar gol alde eta bakar bat ere jaso gabe, eta finalerdietara iritsi aurretiko gainontzeko partida guztiak ere irabazi zituzten. Hala ere, finalurrekoan agur esan behar izan zioten txapelketari.



DUELA 12.000 URTE GRABATUTAKO TORREKO HODIA PIEZA IKUSGAI DAGO EKAINBERRIN

Oiartzungo (Gipuzkoa) Torre haitzuloan aurkitu zuten 1966. urtean Torreko hodia, Paleolitoko arte higigarriaren pieza, eta pieza horren historia ezagutzeko erakusketa zabaldu dute Ekainberrin. Urte honen amaierara arte egongo da ikusgai Torreko hodia. 12.000 urteko galdera izeneko erakusketa, aurkikuntzaren 60. urteurrena aitzakiatzat hartuta.

21 zentimetro eskas dituen pieza da Torreko hodia, eta guztira, 23 motibo daude grabatuta bertan, bi ilaratan. Hodian animalien irudiak –oreina, zaldia, sarrioa, basahuntza eta uroa–, giza irudikapen bat eta hainbat zeinu daude grabatuta. Erakusketaren bidez, pieza horren historia, ezaugarriak eta ikerketa zientifikoa ezagutu ahal izango dituzte bisitariekin. Gainera, Ekainberri erakusketa irisgarria egin du pertsona itsuentzat edota ikusmen urritasuna dutenentzat.



ARANTZETA ETA ALONSO GARAILE TXOKOKO TXAPELKETAN

Uztailaren 3an, ostirala, ziren jokatzekoak Txokoko Pilota Txapelketako finalak, baina euria tarteko, bertan behera utzi behar izan zituzten lehiak. Hurrengo egunerako eguraldi iragarpen hobea zegoela eta, azkenean, larunbat goizean jokatu zituzten finalak.

Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida jokatu zuten aurrea Josu-Josu bikoteak eta Muno-Aner bikoteak, eta alde handiarekin gailendu ziren Muno eta Aner: hain zuzen ere, 30 eta 7 irabazi zuten neurketa.

Horren ostean jokatu zuten final handia: Xabatek eta Julen Valorrek Oier Arantzetaren eta Oier Alonsoren aurka neurtu zituzten indarrak, eta 22 eta 30 irabazi zuen Oier-Oier bikoteak. Beraz, horientzat izan da aurtengo txapela.

ARROAGOIA ETA IRAETA ARTEKO ZATIA FALTA DA UROLAKO BIDEGORRIA AMAITZEKO

NARRONDOTIK ARROAGORA
DOAN BIDEGORRIAREN ZATIA
UZTAILAREN 8AN INAUGURATU
ZUTEN, ETA ERABILGARRI
DAGO JADA. ARROAGOIA ETA
IRAETA ARTEKO AZKEN ZATIA
URTE AMAIERARAKO
BUKATZEA AURREIKUSTEN
DUTELA AZALDU ZUTEN
INAUGURAZIO EKITALDIAN.



Narrondo eta Arroagoia arteko bidegorriaren zatia inauguratuta, Urola bailarako bide berdearen obrak amaierara iristen ari dira. Iraeta eta Arroagoia lotuko dituen 1,57 kilometroko zatia falta da bidegorria amaitu eta Zumarraga eta Zumaia arteko distantzia bizikletan edo oinez egin ahal izateko.

Bidea ez da makala izan. Danbolin.eus webguneko hemerrotekan bilaketa azkar bat egitea nahikoa da proiektuaren etengabeko luzakizunez jabetzeko. Pentsa! 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiak Urolako bidegorria amaituta zegoela argitaratu zuen. Ezingo gara hemen hemerroteka guztia aipatzen hasi, eta utz dezagun kontua esanez 2014tik hona behin eta berriz onartu direla Iraeta eta Narrondo arteko zatiei dagozkien hainbat proiektu zein aurrekontu, eta hamaika izan direla proiektua lehenbailehen egin zedin egindako martxa eta aldarrikapenak. Proiektuak egikaritzera, ordea, iritsi zaigu 2026a. Horren berri emateko agerraldia egin zuten uztailaren 8an, goizean, Arroabeko tren geltoki zaharrean. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak lehen eta bigarren tarteetan irekiera ofiziala egin zuen eta, aldi berean, hirugarren eta azken zatiko obren hasiera ere aurkeztu zuten.

INAUGURAZIO EKITALDIA

Bidegorrian bertan egin zen inaugurazio ekitaldia eta hantxe izan ziren José Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasuneko diputatua, Loly de Juan Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren zuzendaria, Antonio López ETSko zuzendari nagusia, Mikel Arregi Zestoako alkatea, Mikel Serrano Zumarragako alkatea eta Argi Yeregi Zumaiaiko alkateordea. Hiru herrietako ordezkariak pozik agertu ziren bidegorriak mugikortasunean ekarriko dituen onurengatik.

NARRONDOTIK ARROAGORAKO TARTEA, ZABALIK

47 kilometroko luzera duen Zumarraga eta Zumaia arteko distantzia bizikletaz edo oinez lotzeko urrats garrantzitsua da. Horretarako, Narrondo eta Iraeta zatia osatzea falta zen aspalditik. Lanak hiru fasetan banatu zituzten, eta lehenengo biak amaituta, Narrondotik Arroagora arteko bidea erabilgarri dago jada. Inauguratutako tarteek 2,73 kilometroko luzera dute eta lau metroko zabalera kasik bide guztian. Asfaltatutako eta argizatutako bidegorria da. Arroabeko bidegurutzean, Bombas Azcue enpresa dagoen puntutik Arroagora arteko zatia Urola treneko plataforma zenaren gainetik doa, eta AP-8 autobideko eta GI-631 errepide azpitik igarotzen da bi puntutan, Bilbo-Donostia trenaren Arroako tuneleko iparraldeko ahoarekin bat egin arte. Bestalde, Urola trenaren Arroabeko geltoki zaharraren eta Narrondoren arteko zatia N-634 errepidearen albotik doa. Narrondon, egun Zumaia-raino doan bidegorriarekin lotu dute.

Obrak 2025eko uztailaren 21ean hasi zituzten eta 2026ko ekainaren 5ean amaitu, hamar hilabete eta erdiko epean. Guztira, 3.287.235,16 euroko inbertsioa egin dute, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak bideratutako NextGenerationEU funtsen kofinantzaketarekin.

AZKEN ZATIA, URTE AMAIERARAKO

Behin Narrondo eta Arroagoia arteko zatia eginda, bidegorria Iraetaraino eramatea geratzen da bailarako bide berde sarea osatzeko. Dena ondo bidean, lanak urte amaierarako bukatuko dituztela aurreikusten dute.

Hirugarren eta azken zatiko obrak datozen asteetan hasiko dira, eta Jaizubia Obras y Servicios SL enpresak egingo ditu, 1.045.938,07 euroko aurrekontuarekin.

Azken tartea amaitutakoan, hiru faseak batuta, Narrondotik Iraeta arteko bidegorriak 4,31 kilometroko luzera izango du eta, horrela, Zumaia-tik Zumarragaraino dauden 47 kilometroak erabilgarri izango ditugu oinez zein bizikletaz egiteko. Azkenean.

oihane goikoebnea



Zestoa Kirol Bazkunaren aterkipean

Eskubaloia, hutsetik zaletasunera

Eskubaloiarekin ekingo diogu erreportaje honi, Kirol Bazkuna sortu aurretik jada martxan baitzegoen “Club Deportivo Zestua de Balonmano”. Xabin Zulaikak, Alfredo Elorzak eta Juan Mari Artanok izan zuten taldea sortzeko ideia. Esan eta egin.

Eskubaloiaaren aurretik, plaieroetan eta pilotan jarduten omen ziren; beraz, eskubaloian nola jokatzzen zen ere ez zekiten gehienek. Hasierako egunetan bateren bat baloia eskuetan hartu eta saltaka abiatzen omen zen; azaldu egin behar izan zieten botatuz egin behar zela. Ez zuten dirurik, ezta jokatzeko kantxarik ere, baina hutsetik sortu zituzten bai taldea, bai zaletasuna. Kirol talde haren sorrerak herri-gintzan sekulako eragina izan omen zuen; egundoko nobedadea izan zen. Jokatzeko kantxarik ez, eta lehen urtean Azpeitiko Betharramisetan jokatu zuten, eta, gero, Zumaiako monjetan. Hirugarren denboraldia bikaina izan zen: jubenilek Zarauzko udako txapelketa irabazi zuten, eta seniorrek ligako txapeldun amaitu zuten.

Arrakasta hark bultzatuta, Udalak hormigoizko zoladura jarri zuen Gurutzeaga frontoiaren atzealdeko orubean —gaur egun umeen parkea dagoen inguruan gutxi gora behera—. Zementuzko zorua udalak jarri zuen; ateak, ordea, taldeak.

EZ DIRA GUTXI ZESTOAN EGIN DIREN KIROLAK.
AURREZ ESKUBALOIAK ETA PILOTAK BEREN
IBILBIDE TXOA EGINA ZUTEN HERRIAN, FUTBOLA,
TXIRRINDULARITZA, ATLETISMOA ETA
MENDIZALETASUNA BATU ZITZAIZKIENEAN
ZESTOA KIROL BAZKUNA SORTZEKO. ANTSELMO
ASTIAZARAN EK GOGOAN DU NOLA DUELA 50
URTE HERRIAN KIROLA BULTZATZEKO IRRIKAZ
ZEGOEN GAZTE TALDE BAT KIROL BAZKUNA
SORTZEKO ASMOTAN HASI ZEN. HALA ERE,
LEHEN DOKUMENTU OFIZIALAK 1987KO DATA
DARAMA. HORREK EZ DU ESAN NAHI ORDURA
ARTE HERRIAN KIROL ANTOLATURIK EZ
ZEGOENIK; AITZITIK, HAINBAT TALDE ETA EKIMEN
BAZIREN ORDURAKO MARTXAN.
HAMARKADETAN ZEHAR, HAINBAT KIROL TALDEK

URTEAK IGARO
DITUZTE KIROL
BAZKUNAREN
ATERKIPEAN LANEAN.
HERRIAN KIROLA
MODU ANTOLATUAN
SUSTATZEA ZEN
KLUBAREN XEDEA.
2014AN, ORDEA,
ESTATUTUAK ALDATU
ZITUZTEN, ETA TALDE
BAKOITZAK BERE
BIDEA EGITEA

ERABAKI ZUEN. HORRELA SORTU ZIREN GAUR
EGUN EZAGUTZEN DITUGUN KLUBAK.
KIROL TALDE HORIEN IBILBIDEAREN ZERTZELADA
BATZUK AZALDUKO DIRA JARRAIAN. KIROL
HAUEN IBILBIDEA ASKOZ ERE ZABALAGOA BADA
ERE, PAPERAREN MUGAK TARTEKO, PASARTE
NAGUSI BATZUK BAINO EZ DITUGU JASO.



Urte gutxian eskubaloia sekulako zaletasuna piztu zuen herrian. 1975 inguruan bost talde zeuden, guztiak gizonezkoenak, eta kirolaren gorakadak udalaren proiektu nagusietako bat ere baldintzatu zuen. Hasieran pilotaleku bat egiteko asmoa bazegoen ere, herritarren eskaerari erantzunez, kiroldegia eraiki zuten, eta, harekin, eskubaloian jokatzeko lekua. Bi hamarkadatan indar handia izan zuen eskubaloia Zestoa; gero, ordea, desagertu egin zen, eta gaur egun eskola kirolaren bidez baino ez da egiten.



Pilotari lotutako herria

Zestoa historikoki herri pilotaria izan da. Horren erakusgarri da duela 120 urte eraiki zuten frontoi zaharra. Garai hartan artekariak barra-barra ibiltzen omen ziren han. Apustu giroko frontoia zen, eta, ziurrenik, apustuen munduak eman zion bere garaian izan zuen ospea.

Kirol Bazkuna sortu aurretik ere pilota jaialdiak antolatu ziren Zestoan. Uda sasoiaren egunero bi partida jokatzen ziren, eta frontoiaren udako kudeaketa enkante bidez esleitzen zen; diru gehien eskaintzen zuenak antolaketa bere gain hartzen zuen.

Zestoak presentzia handia izan Herri arteko Txapelketan ere. Hogeitabat urtez jarraian parte hartu zuen, 1990eko hamarkadan etenaldia iritsi zen arte. Bidean, emaitza bikainak lortu zituen: 1971n eta 1974an finalera iritsi zen, nahiz eta bietan txapelak ihes egin. Iaz arte ez ziren zestoarrak berriro finalaurrekoetara iritsi. Herrian beste txapelketa batzuk ere antolatu izan dira, gaur egun ere bizirik dirautenak, hala nola Txokoko Txapelketa.

Garai hartan pilotari handi eta profesional ugari ateratu ziren Zestoatik. Alabaina, pixkanaka jarduera apaldu egin zen, eta belaunaldi berriak sortu baziren ere, askok kanpoan egin zuten beren kirol ibilbidea. Ondorioz, nolabaiteko geldialdia bizi izan zuen herriko pilotak.

Dena den, pilota taldeak eta pilota eskolak lanean jarraitu zuten, eta egoerari buelta ematea lortu zuten. Geroz eta haur gehiago hasi ziren pilotan, eta horrek beharrezko erreleboa ekarri zuen. Emakumeen presentzia, ordea, oso berandu iritsi zen: Leire Lopetegi eta Maialen Etxeberria izan ziren Zestoako Pilota Elkartean federatutako lehen bi emakumeak, 2016an. Biak palaz aritzen ziren. Gaur egun, 2014az geroztik, Abantzu Pilota Kluba izenpean dihardute, eta haur zein gazteek astero entrenatu eta hainbat txapelketatan parte hartzen dute.

Hango eta hemengo mendietan barrena

Zestoarrek betidanik izan dute mendian ibiltzeko zaletasuna. Mendi artean bizi denak burua altxatu eta gailurrera igotzeko grina izaten du. Agiro Mendi Taldearen sorrera ulertzeko, 80ko hamarkadara egin behar dugu atzera. Antza denez, garai hartan bi mendizale talde edo zeuden: bate-tik, inguruko mendietan ibiltzen zirenak eta nagusiki mendi taldearen martxa eramaten zutenak; bestetik, mendizaletasuna beste modu batera ulertzen zutenak, kanpoko mendietara eta erronka handiagoetara jotzen zutenak. Mikel Irure bigarren talde horretakoa zen: “Lehenengo mendizaleak zurrutazaleak eta mendigoizaleak ziren, batez ere hemengo mendietan ibiltzen zirenak... Guk, ordea, eskema denak puskatzen genituen”.

Agiro Mendi Taldea 1987an sortu zen ofizialki. Xabier Sagarzazu izan zen lehen idazkaria, oso gaztea artean, eta taldearen izena Xoxoten egindako bilera batean aukeratu zuten antza. Mikel Irureren arabera, hainbat proposamenen artean Agiro nagusitu zen: “mendi polita zela, Zestoatik ederki ikusten zela, eta horixe jarri”.

Taldearen helburua mendizaletasuna sustatzea zen: inguruko mendiak ezagutzeaz gain, Pirinioetara irteeraren bat egitea eta bide berriak ezagutzea. Urte hauetan guztietan federatu ugari izan dira herrian; mende hasieran, esaterako, 70 zestoar zeuden Gipuzkoako Mendi Federazioan federatuta.

Hamarkadetan mendiaren bueltan askotariko jarduerak antolatu dituzte: ibilaldi neurtuak, Pirinioetarako irteerak, eskalada, eskia, traila eta espeleologia, besteak beste. Horien artean, Zestoako Ibilaldi Neurtua da hitzordu nagusietako bat; aurten, hain zuzen ere, 24 urte bete ditu. Urte hauetan guztietan, mendizaletasuna bezala, taldea ere aldatuz joan da, eta duela hamabi urte estatutuak eguneratu ondoren, Agiro Mendi Kluba sortu zen.




Hondartzan hasi, hartxintzarretik pasa, eta belar artifizialean futbolean

Futbola izan da, urte luzez, Zestoan herritar gehien mugitu dituen kirola. Hasierako urteetan, ordea, jokatzeko zelairik ezean, ahal zuten tokian aritzen ziren. 1950eko hamarkadan, esaterako, Zarauzko hondartzan jokatzeko ziren *plai*erotara joaten ziren. Chocolates Loyolako kamioi txiki batean egiten zuten bidaia, txokolatea banatzeko erabiltzen zen ibilgailuan, isil-isilik, Guardia Zibilak gelditzeko beldurrez.

Herrian futbol zelairik ez, eta inguruko herrietako instalazioak erabiltzen zituzten. Egoera aldatzen hasi zen kiroldegia eraiki eta eskolako gazteek areto futbolean maila bikaina erakutsi zutenean. Urte oso batean partida bakar bat ere galdu ez izanak erakundearen arreta piztu zuen, eta horrek bultzatu zituen Zubiaurre futbol zelaia eraikitza. Nolabait esateko, areto futbolak hauspotu zuen Zubiaurreren sorrera.

“Batzuentzat infernua eta besteentzat gotorlekua”. Halakoa zen Zubiaurre futbol zelaia, gaur egun pumptracka dagoen tokian kokatzen zena. Hartxintzarrezkoa zen, eta jokalariek eurek margotzen zituzten astero zelaiko marrazkarekin. Hasieran ez zegoen aldagelarik; gero jarri zituztenetan ere, dutxatu ondoren handik garbi ateratzea zaila zen, itxura denez. Atsedendietan Lauiturrira joaten ziren, eta baloiak ibaira erortzen zirenean, salabar-do erraldoi batekin berreskuratzen zituzten. Baldintza xumeak izan arren, astebururo ikusleez gainezka egoten zen zelaia, eta askok oraindik gogoan dute han sortzen zen giro paregabea.

Zestoako futbolak une gogoangarri ugari utzi ditu. Horietako bat 1990ean gertatu zen. Belgikako Flandes Cup txapelketara abiatu aurretik, taldeko jokalaria bat istripuz hil zen. Kolpe



latza jaso arren, taldeak bidaia egitea erabaki zuen, eta txapeldun itzuli zen. Talde haren batasuna eta indarra mugarri bihurtu ziren.

Beste une ahaztezin bat, berriz, duela 25 urte iritsi zen, Zestoak Espainiako Hirugarren Mailara igotzea lortu zuenean. Lorpen hura hain izan zen berezia, Gipuzkoako Futbol Federazioko ordezkariak eta Realeko Zamora bera ere zoriontzera etorri baitziren. Maila hartan urtebete baino iraun ez bazuten ere, jokalariek argi dute arrakastaren gakoa taldearen konpromisoa, elkarlana eta batasuna izan zirela. Konpromiso horren erakusgarri da Gaizka Kortadik kontatutako bitxikeria hau: “Partida bateko atsedendian, kapitainak guztiei kamiseta erantzi eta poltsan sartzeko esan zigun; oso gaizki ari ginela jokatzeko eta ez genuela Zestoako kamiseta janztea merezi”. Gaur egun oraindik urtero elkartzen dira garai hartako taldekideak une haiek gogoratzeko.

Zubiaurren aztarna arkeologikoak aurkitu zirenean, futbol zelaia Iraetara lekualdatu behar izan zuten. Instalazio berriak modernoagoak baziren ere, askorentzat Zubiaurreko gertutasuna eta nortasuna galdu ziren.

Emakumeen futbola, beste kirolekin bezala, gizonezkoenarekin alderatuta berandu iritsi zen. Hasieran areto-futbolekin aritu ziren, eta Iraeta futbol zelaiarekin batera sortu zen nesken futbol taldea ere. Lehenengo urte hartan, bi talde aritu ziren. Emakumeen taldeek ere garai oparoak bizi izan dituzte; esaterako, 2014/15 denboraldian Gipuzkoako txapeldun izan ziren jubenilen mailan. Gaur egun, futbolak Kirol Bazkunaren barruan jarraitzen du atletismoarekin batera, eta 300 jokalaria ingururen etxea da.



Ibiltari laster eta korrikalarietatik, atletismoraino

Kirol Bazkuna sortu zenean herritar gutxik egiten zuten atletismoa; beren kasa eta ahal zen

Txirrindu gainean hor zehar

Txirrindu gainean ordu asko pasatakoak dira makina bat zestoar. Herrian horretarako aukerarik ez, eta txirrindulariak Azpeitira edo Zumaira joaten ziren, mahonezko galtzak soinean, bizikletan ibiltzera.

1986an antolatu zen Zestoan txirrindularitzarekin lotutako lehen proba; Ondarbasoko Igoera, hain justu. Zestoako Gazte Asanbladak antolatu zuen, herritar askoren laguntzarekin. Jesus Izeta *Koiote* hasieratik agertu zen laguntzeko prest, eta Gazte Asanbladako kide zen Luix Migel Ugarte *Zunzune*kin, baserriz baserri ibili ziren baserritarrei proba garaian txakurrak lotuta izateko eskatuz.

Handik urte gutxira, Jesus Mari Iburguren *Lokatzza*, Juan Carlos Iraolagoitia eta Bitoriano Odriozola Arlensiu tabernan elkartu ziren, Kirol Bazkunaren barruan txirrindularitza saila sortzeko asmoz. Talde hark hartu zuen Ondarbasoko Igoera antolatzeko erreleboa. Urteen poderioz, probaren egunak ere izan ditu gorabeherak, baina hitzorduak ez du etenik izan (COVID garaian izan ezik, noski). Partaide gehienak gizonezkoak izan ziren arren, 2005ean emakumeek ere parte hartu zuten lehen aldiz: Olatz Sagarna eta Maitane Zumetak.

Lehiaketaz gain, txirrindulari taldeak, martxotik irailera bitartean, 25-30 irteera inguru antolatzen zituen urtero, inguruko herrietako taldeekin batera. Ziklista bakoitzak bere liburuxka izaten zuen, eta irteera bakoitzean zigilua jartzen zietela gogoratzen du Bitoriano. Taldearen lehendakaria aukeratzeko garaian, besteek familia ardura gehiago zituztela eta, Bitorianori egokitu omen zitzaion kargua. Berak umorez gogoratzen du: “Ez zen beste munduko lanik; baina zaplada bat jaso behar bazen, ni nintzen lehena”.

2014an, txirrindularitzak ere bere bidea hartu zuen Gurutzeaga Txirrindulari Kluba sortuta. Gaur egun, Ondarbasoko Igoeraz gain, Gurutzeaga Txirrindulari Saria ere antolatzen dute herrian.

moduan korrika egiten zuten gehientsuenek. Garai hartan, korrika eta apustuak eskutik joaten ziren Zestoan, eta apusturik gabeko korrikak, atletismoak, ez zuen indarrik, ez erakargarritasunik. Herriko atletismoaren hitzordu nagusia Herri Krosa izan ohi zen, eta hala izaten jarraitzen du. Lehen aldiz 1979an antolatu zuten. Jesus Izeta *Koiote* izan zen sorreran bultzatzaile nagusia, haren ingurukoen laguntzarekin. Koioteko jangelan elkartu omen ziren antolatzaileak, eta han prestatu zuten lasterketa. Lehen edizioa Santa Kutz jaietan jokatu zen, nahiz eta urte gehienetan San Jose egunean egin izan den. Garai hartako lasterketak gaur egungoak baino luzeagoak eta gogorragoak ziren antza denez, eta emakumeen parte hartzea ez zen 1984ra arte iritsi.

Sari bereziak ere baziren. Antolakuntzan zegoen Jesus Goikoetxea *Fatiri* bururatu omen zitzaion pisutsuenarentzako saria jartzea — ez omen zen arinenetakoa bera—. Portu tabernan pisatu omen ziren hainbat korrikalari, eta saria azpeitiar batek irabazi omen zuen, 400 gramo gehiago pisatzen baitzuen. Elkarriketan ahaztu egin zitzaion aipatzea pisutsuenaren saria sortzeko ideia berea izan zela.

Atletismoa modu antolatuan egiteko garaia 1986-87 urteen inguruan hasi zen, haurren atletismoa serio bultzatzeko ahaleginarekin. Herri Krosean parte hartzen zuten gazteekin osatutako taldeak 65 haur bildu zituen lehen denboraldian, eta Gipuzkoa osoan lehiatu ziren. 1980ko hamarkadan atletismo sailak indar handia hartu zuen, eta Zestoako atleta federatuek Gipuzkoako, Euskadiko, Espainiako nahiz nazioarteko txapelketetan parte hartu zuten; baita emaitza aipagarriak lortu ere.

Hala ere, eskola mailako atletismoari ez zitzaion behar adinako babesik eman, eta oztopoak bata bestearen atzetik etorri ziren. Ondorioz, eskola mailako atletismoa desagertu egin zen, eta haurrek korrika egiteari utzi ahala, kadete eta junior mailako jarduerak ere behera egin zuten.

Gaur egun, atletismoak Kirol Bazkunaren barruan jarraitzen du, futbol taldearekin batera.

oihane goikoetxea





NARRONDOKO SANKRISTOBALAK



ARROABEKO KARMENAK





ARROAGOIKO SANTIO-SANTANAK



euskarari eusteko beti dago tokia

Haurrak:

- Basati
- Handi bezain txiki
- Protesta

Gaztetxo eta gazteak:

- AHT
- Odol ilargiaren alaba
- 72 egun eta soineko bat

Helduak:

- Barne zerbitzuak
- Barazkijalea
- Itsasoaren ahutzak



abuztuaren 7ra arte liburutegia zabalik



Bai, batzuetan erabiltzen dut. Gehienbat Googleko adimen artifiziala erabili izan dut, gaur egun Googlen zerbait bilatzean adimen artifizialak berak ematen baititu erantzunak. ChatGPT ere probatu dut, baina bi aldiz bakarrik, argazkiak editatzeko.

Giovanna Fernandez
41 urte



Bai, egunerokoan sortzen zaizkidan zalantzak argitzeko erabiltzen dut. Lanerako ere baliatzen dut, informazioa bilatu edo adibideak behar ditudanean. Hala ere, kezka ere sortzen dit; zaila egiten zait adimen artifizialaren mugak non dauden jakitea, eta horrek nolabaiteko ardura eragiten dit.

Joritz Zunzunegi
29 urte



Nire egunerokoan noizean behin erabiltzen dut, sortzen zaizkidan zalantzak argitzeko edo zerbait egiteko laguntza behar dudanean. Horretarako oso tresna lagungarria iruditzen zait. Iazko ikasturtean, berriaz, asko erabili nuen ikasketetarako.

Iratxe Martin
26 urte




Bai, argazkigintzarako erabiltzen dut. Photoshopen argazkiak editatzekoan lagungarriak izan daitezkeen aholkuak eskatzen dizkiot adimen artifizialari.

Joxean Ulazia
63 urte

adimen artifiziala erabiltzen duzu?

■ bai, noizean behin
■ bai, ia egunero
■ ez, ez dut erabiltzen
■ oso gutxitan



Erantzuleak guztira: 99



Urez beteriko globoekin jolastu ondoren, globoen hondarrak lurretik.



Iraetako baratze parkearen inguruan eta Aizarnazabalera doan oinezkoen bidean eserlekuak jarri dituzte.

ABUZZTUA

sanlorenteko jaiak

10 astelehena

Meza, hamaiketakoa, bertsolariak, bisita gidatua, ume jolasak...

amabirjinak aizarnan

14 ostirala

18:00 Txupinazoa. Jarraian, karropoteoa herriko gazteen eskutik. 21:00 Herri afaria. Gero, Obaneuke eta DJ Patx.

15 larunbata

9:45 Meza nagusia. Jarraian, jubilatuen hamaiketakoa. 12:00 Pilota partidak. Lehenengo partida: Lizarralde-Telleria vs. Bergara-Aranburu. Bigarren partida: Lizarralde-E. Egiguren vs. Olano-P. Egiguren. Hirugarren partida: A. Aranguren - U. Egiguren vs. Sasiain - Alonso. 18:00 Herri kirolak, Aizarna vs. Aizarnazabal. 19:30 Bost axola. 22:30 Bingoa eta jarraian, Dja.

16 igandea

7:30 Oilasko biltzearen hasiera. 12:00 Umeen krosa. 14:30 Oilasko biltzaileen aurrezkua plazan. Jarraian, paellada. 22:30 Laketa eta DJ Costmix.

17 astelehena

11:00-13:00. Kalaka zurezko plaza jokuak. 13:30 Umeen bazkaria (aurrez izena emanda Guraso Elkartekoei). 17:00 Ginkana. 19:00 DJ Ostoa.

29 larunbata

Gazteen eguna. Goizean, Ondarbasoko igoera, ondoren, herri bazkaria eta gauean, kontzertuak.

30 igandea

Edadetuen eguna. Omenaldia, bazkaria, herri kirolak, txistularien alardea...

IRAILA

Amabirjinak zestoan

05 larunbata

Txupinazoa, paella, txaranga, musika...

06 igandea

Nafartasunari gorazarrea, zekorketak, Gurea Kultura, musika...

07 astelehena

Umeen txupinazoa, poniak, bazkaria, umeentzako ekintzak, suzko zezena, musika...

08 asteartea

Amabirjin eguna. Diana, meza nagusia, dantzaurrea, bandaren kontzertua, zekorketa, Gurea Kultura, Zahagi Dantza...

MGS

Seguros y Reaseguros SA
Mila Aranguren

Tel.: 614 196 483
milagrosaranguren@arranaga@mgs.es



ESKELA DIGITALEN ZERBITZUA

DANBOLIN.EUS ATARIAN

Eskela jartzeko zuzeneko bidea:

* Danbolin.eus telefonora deitu (722 609 265)

* info@danbolin.eus helbidera idatzi



FEREGI

BERRIKUNTZAK

**ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA**

Jagoba Otaegi Isidro Fernandez
695 721 015 690 108 996

Taxi Zestoa



9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena



Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portale kalea 1, BeheB+20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDATZIOA

943 147 019

sjzuzendaritza@gmail.com

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
denda
Tlf 943 147 015

Fakir Oliva
943 148 428

EROSKI city
zurekin
943 062 861

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110

mairl
LOTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Izarraitz
Kudeaketa informatikoa

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

Kerala
ongizate txokoa
679 885 173

Etxerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

ZESTOA
ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARIATZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZESTOAKO UDALA